

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

ZEHARKAKO ZERGEN ZERBITZUA- BEZAREN ETA ZERGA BEREZIAREN ATALA

Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ogasun Finantza eta Aurrekontu, Saileko foru diputatua, 340/2022 Foru Agindua, ekainaren 8koa, Foru Agindua, zenbait Zerbitzu Digitalen Gaineko Zergaren autolikidazioa 490 eredua onesten duena eta hura aurkezteko modua eta prozedura zehazten dituena

Ekonomia Itunaren aldaketa berriak zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga ituntzea ekarri du. Indarreko Ekonomia Itunaren 34 ter artikulua jasotzen du zerga hori, eta bertan xedatzen denez, tributu bat da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berak erabiliko dira hura arautzeko.

Zenbait Zerbitzu Digitalen gaineko Zergaren urriaren 15eko 4/2020 Legeak sortu zuen zerga hori zeharkako zerga bat da, zenbait zerbitzu digitalen prestazioak zergapetzen dituena. Zehazki, zerbitzu digitalak dira, eta zerbitzu horien inguruan erabiltzaileek parte hartzen dute, eta horrek ekarpena egiten dio zerbitzuak ematen dituen enpresaren balioa sortzeko prozesuari. Zerbitzu horien bidez, enpresak erabiltzaileen ekarpen horiek monetizatzen ditu.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 15eko 3/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak zerga berri hori Arabako Lurralde Historikoko zerga ordenamenduan txertatzen du. Haren 14. artikulua ezartzen duenez, Ogasun Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu baten bidez ezarritako tokian, moduan eta epeetan aurkeztu beharko dute kasuan kasuko autolikidazioak eta ordaindu beharko dituzte zerga zorra zergadunek.

Agindu honen xedea da onespena ematea 490 ereduari "Zenbait Zerbitzu Digitalen Gaineko Zergaren autolikidazioa" eta hura aurkezteko moduari eta prozedurari.

Hori dela bide, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 490 eredua onestea

Onspena ematen zaio 490 ereduari "Zenbait Zerbitzu Digitalen Gaineko Zergaren autolikidazioa", zeinak formatu elektronikoa baitu eta zeinaren edukia foru agindu honen eranskinean agertzen baita.

2. artikulua. 490 eredua aurkeztu behar dutenak

490 eredua aurkeztu eta ordaindu beharreko zenbatekoa ordaindu beharko dute Zenbait Zerbitzu Digitalen gaineko Zergaren 3/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 8. artikuluan aipatzen diren zergadunek.

3. artikulua. 490 eredua aurkezteko epea

Bat. Likidazio aldia hiruhileko naturalarekin bat etorriko da.

Bi. Hiruhileko naturalaren aldia amaitu ondorengo lehenengo 25 egun naturaletan aurkeztu eta ordaindu beharko da 490 eredua.

Hiru. Hiruhilekoko likidazioaren aldiren batean kuotarik ordaindu behar ez bada, zergadunak zergaren aitortpen negatiboa aurkeztu beharko du.

4. artikulua. 490 eredua aurkezteko modua, baldintza orokorrak eta prozedura

490 eredua telematikoki aurkeztuko da nahitaez, bat etorri azaroaren 20ko 603/2020 Foru Aginduan xedatutakoarekin. Foru agindu horren bidez, zergapeko pertsona eta erakunde jakin batzuek zerga eredu eta eskaerak modu telematikoan, internet bidez, aurkezteko baldintza orokorrak ezartzen dira.

Ordaintzeko moduari dagokionez, helbideratuta edo ordainketa gutuna lortuta ordaindu ahalko da.

Xedapen gehigarriak

Lehenengoa. Datu pertsonalen tratamendua.

Zergapekoak bere zerga betebeharrak betetzeko emandako datu pertsonalak datu horien titularrek web atari honen bidez egindako eragiketa edo izapideetan eskatutako helburuetarako baino ez dira erabiliko. Aipatutako datuak inoiz ere ez dira tratatuko eta ez zaizkie beste batzuei lagako, ez bada datuen titularraren baimen argi eta garbiarekin edo berariazkoarekin edo, baimen hori gabe, ondoko xedapen hauetan aurreikusitako salbuespenezko kasuetan: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datu pertsonalen lanketari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duenak, 6. eta 7. artikuluan xedatutako kasuetan.

Bigarrena. Zenbait Zerbitzu Digitalen gaineko Zergaren 3/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren autolikidazioak erregularizatzeko prozedura.

Bat etorri Zenbait Zerbitzu Digitalen gaineko Zergari buruzko 3/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 10. artikuluko 3. apartatua xedatutakoarekin, zerga oinarriaren behin-behineko zenbatekoekin aurkeztutako autolikidazioen erregularizazioa zerga oinarri horren zenbatekoa ezagutzen den aldiari dagokion autolikidazioan egin beharko da, autolikidazio ereduaren erregularizazioen berariazko apartatua jasoriko xehakapen eta edukiarekin.

Erregularizazio hori eragiketari dagokion zergaren sortzapen dataren ondorengo 4 urteko epean egin beharko da beranduenez.

Aurrekoa gorabehera, baldin eta autolikidazio hori aurkezteko unean zergapekoak jada ez badu zergadun izaera zergagatik, zerga oinarriaren behin-behineko zenbatekoekin aurkeztutako autolikidazioak erregularizatu beharko ditu kasuan kasuko autolikidazio osagarriak eta/edo haiek zuzentzeko eskaerak aurkeztuta, agindu honen eranskinean jasoriko xehakapen eta edukiarekin.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 603/2020 Foru Agindua, azaroaren 20koa, pertsona eta erakunde jakin batzuentzat zerga ereduak eta eskabi-deak internet bidez aurkezteko baldintza orokorrak ezartzen dituena.

Aldatzen da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren azaroaren 20ko 603/2020 Foru Agindua, zeinak ezartzen baititu pertsona eta erakunde jakin batzuentzat zerga ereduak eta eskaerak interneten bidez aurkezteko baldintza orokorrak, nahitaezkoa izan dadin 490 eredua bide telematikoz aurkeztea.

Honako hau sartzen da 1. artikuluan, Bat apartatua, "Urteko laburpenak, informazio eta errolda aitorenak" azpiapartatua:

490 eredua. "Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga. Autolikidazioa".


Bigarrena. Indarrean jartzea.

Agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2022ko bigarren hiruhilekoko aitortpeni aplikatuko zaie lehenengo aldiz, zeinak aurkezteko epea 2022ko uztailearen 1ean hasiko baita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 28a

Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasunaren zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	Zenbait Zerbitzu Digitalen Gaineko Zerga Impuesto sobre Determinados Servicios Digitales	490
	AUTOLIKIDAZIOA ■ AUTOLIQUIDACIÓN	

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

1. Aitortzailea ■ Declarante IFZ ■ NIF <input type="text"/> Deiturak eta izena, edo sozietatearen izena ■ Apellidos y nombre o razón social <input type="text"/> Helbide elektronikoa ■ Correo electrónico <input type="text"/> Telefono zk. ■ N.º teléfono <input type="text"/> Ordezkararen IFZ ■ NIF representante <input type="text"/> Ordezkararen deiturak eta izena ■ Apellidos y nombre representante <input type="text"/>	2. Ekitaldia eta zergaldia ■ Ejercicio y periodo Ekitaldia ■ Ejercicio <input type="text"/> Zergaldia ■ Periodo <input type="text"/> Jarduerarik gabe Sin actividad <input type="checkbox"/> 90 Osagarria Complementaria <input type="checkbox"/> 901 Autelikidazio zk. N.º Autoliquidación <input type="text"/> 902 Epea kanpo eta errekerimendu bidez aurkeztua Presentada fuera de plazo por requerimiento <input type="checkbox"/> 930
--	---

3. Taldearen izena ■ Identificación del grupo Taldearen izena ■ Denominación o nombre del grupo <input type="text"/> 92 Entitate menderatzailea ■ Entidad dominante <input type="text"/> 93		Menderatzailearen herrialdea ■ Pais de la dominante <input type="text"/> 94
--	--	---

4. Likidazioa ■ Liquidación ZERGA OINARRIA ■ BASE IMPONIBLE		Erregularizazioa ■ Regularización <input type="text"/> 23
1) Lineako publizitate zerbitzuak ■ Servicios de publicidad en línea		
Diru sarrerak, guztira ■ Ingresos totales	01	<input type="text"/>
Zergaldiko zerga oinarria ■ Base imponible periodo	02	<input type="text"/>
Aurreko zergaldietako Z0ren erregularizazioa ■ Regulariz. BI periodos anteriores	03	<input type="text"/>
2) Lineako bitartekaritza-zerbitzuak ■ Servicios de intermediación en línea		
A. Ondasunak entregatuz edo azpiko zerbitzuak emanaz ■ Con entrega de bienes o prestación de servicios subyacentes		
Diru sarrerak, guztira ■ Ingresos totales	04	<input type="text"/>
Zergaldiko zerga oinarria ■ Base imponible periodo	05	<input type="text"/>
Aurreko zergaldietako Z0ren erregularizazioa ■ Regulariz. BI periodos anteriores	06	<input type="text"/>
B. Lineako beste bitartekaritza-zerbitzuak ■ Demás servicios de intermediación en línea		
Diru sarrerak, guztira ■ Ingresos totales	07	<input type="text"/>
Zergaldiko zerga oinarria ■ Base imponible periodo	08	<input type="text"/>
Aurreko zergaldietako Z0ren erregularizazioa ■ Regulariz. BI periodos anteriores	09	<input type="text"/>
3) Datuak eskualdatzeko zerbitzuak ■ Servicios de transmisión de datos		
Diru sarrerak, guztira ■ Ingresos totales	10	<input type="text"/>
Zergaldiko zerga oinarria ■ Base imponible periodo	11	<input type="text"/>
Aurreko zergaldietako Z0ren erregularizazioa ■ Regulariz. BI periodos anteriores	12	<input type="text"/>
Zergaldiko zerga oinarria ■ Base imponible periodo	13	<input type="text"/>
Aurreko zergaldietako Z0ren erregularizazioa ■ Regulariz. BI periodos anteriores	14	<input type="text"/>
Mota ■ Tipo	15	<input type="text"/>
KUOTA OSOA ■ CUOTA ÍNTEGRA	16	<input type="text"/>
Arabako Foru Aldundiari egotzi ahal zaion kuota osoa ■ Cuota íntegra atribuible a la DF de Álava	17	<input type="text"/>
ERREGULARIZAZIO ZERGALDIETAKO KUOTA OSOAREN DOIKUNTZA ■ AJUSTE CUOTA ÍNTEGRA PERIODOS REGULARIZACIÓN	18	<input type="text"/>
AFARI egotzi ahal zaion doikuntza ■ Ajuste atribuible a DF de Álava	19	<input type="text"/>

5. Zerga ordainketa lurraldeka ■ Tributación por territorios											
Araba/Álava	30	%	Gipuzkoa	31	%	Bizkaia	32	%	Lurralde erkidea ■ T Común	33	%

6. Emaita ■ Resultado					
Aurretik sartutako kuotak (autolikidazio osagarria egitekotan) ■ Cuotas ingresadas anteriormente (en caso de autoliq complementaria)	61	<input type="text"/>			
Errekargua ■ Recargo	62	<input type="text"/>			
Berandutze korrituak ■ Intereses de demora	63	<input type="text"/>			
LIKIDAZIOAREN EMAITZA ■ RESULTADO DE LA LIQUIDACIÓN	Sartu ■ A ingresar	81	Itzuli ■ Devolver	82	<input type="text"/>
Kuotaren erregularizazioa, guztira ■ Total regularización cuota	200	<input type="text"/>			
AFARI egotzi ahal zaion kuotaren erregularizazioa, guztira ■ Total regularización cuota atribuible a DFA	201	<input type="text"/>			

REF: Z2/090

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava	Zenbait Zerbitzu Digitalen Gaineko Zerga Impuesto sobre Determinados Servicios Digitales AUTOLIKIDAZIOA ■ AUTOLIQUIDACIÓN	PÁG. 2
		490

IFZ ■ NIF	Deiturak eta izena, edo sozietatearen izena ■ Apellidos y nombre o razón social
-----------	---

Erregularizazioa ■ Regularización		1T	2T	3T	4T
Ekitaldia Ejercicio	100				
Erregularizatutako zergaldiko aitortutako ZO BI declarada en periodo regularizado	(a)	101	112	123	134
Erregularizazio positiboa (ZO) Regularización positiva (BI)	(b)	102	113	124	135
Erregularizazio negatiboa (ZO) Regularización negativa (BI)	(c)	103	114	125	136
Erregularizazioa guztira (ZO) Total regularización (BI)	(d) = (b) - (c)	104	115	126	137
Zerga tasa Tipo impositivo	(e)	105	116	127	138
Erregularizazio positiboa (kuota) Regularización positiva (cuota)	(f) = (b) × (e)	106	117	128	139
Erregularizazio negatiboa (kuota) Regularización negativa (cuota)	(g) = (c) × (e)	107	118	129	140
Erregularizazioa guztira (kuota) Total regularización (cuota)	(h) = (f) - (g)	108	119	130	141
AFari egotzi ahal zaion kuotaren erregularizazioa Regularización cuota atribuible a DFA	(i) = (h) × (m)	109	120	131	142
AFari egotzi ahal zaion kuotaren erregularizazioko doikuntza Ajuste en regularización cuota atribuible a DFA ... (j) = (a) × (e) × [(m) - (i)]		110	121	132	143
AFari egotzi ahal zaion kuota osoko doikuntza, guztira Total ajuste en cuota integra atribuible a DFA	(k) = (j) + (i)	111	122	133	144

Lurraldearen arabeko zerga ordainketaren informazioa ■ Información de la tributación por razón del territorio		1T	2T	3T	4T
ARABA					
Erregularizatutako zergaldiko % ■ % periodo regularizado	(l)	150	158	166	175
% erregularizazioarekin ■ % con regularización	(m)	151	159	167	176
GIPUZKOA					
Erregularizatutako zergaldiko % ■ % periodo regularizado		152	160	168	177
% erregularizazioarekin ■ % con regularización		153	161	169	178
BIZKAIA					
Erregularizatutako zergaldiko % ■ % periodo regularizado		154	162	170	179
% erregularizazioarekin ■ % con regularización		155	163	171	180
LURRALDE ERKIDEA ■ TERRITORIO COMÚN					
Erregularizatutako zergaldiko % ■ % periodo regularizado		156	164	172	181
% erregularizazioarekin ■ % con regularización		157	165	173	182